

AUTOEBALUAZIORAKO GALDERAK ETA KASUAK

1. Nola definitzen da hiperkolesterolemia? Zeintzuk dira balio normalak/osasuntsuak helduaroan? Eta haurtzaroan?
2. Zeintzuk dira gomendio dietetikoak paziente obeso eta hiperkolesterolemikoarentzat?
3. Aipatu hipertrigliceridemiaren tratamendu dietetikoaren ardatz nagusiak?
4. Zer da hiperkilomikronemia bat? Hipertrigliceridemia guztiak berdin tratatzen dira?
5. Zer para metro biologikoak eskatuko zenituzkeen paziente hiperkolesterolemikoaren tratamendu jarraitzeko.
6. Hiperkolesterolemian ez-gomendatuak dauden 10 elikagai izendatu.
7. Zein da antioxidatzaileen funtzioa patologia kardiobaskularrean?
8. Zer bilatzen dugu patologia kardiobaskularra daukan paziente bati arrainaren kontsumoa handitzea gomendatzen diogunean?
9. Zein izango litzateke zure gomendioa kafearen kontsumoaren inguruan hipertentsio arteriala daukan pazientearentzat?
10. Zein da gizon bati gomendatzen zaion tratamendu dietetiko plasmako kolesterolaren maila 260 mg/dL-koa baldin bada eta HDL-kolesterolaren kontzentrazioa 30 mg/dl-koa denean? Eta tratamendua 3 hilabetez jarraitu eta gero LDL-kolesterolaren maila 160 mg/dl-koa baldin bada aldaketaren bat egin beharko da?
11. Sailkatu eta diagnostikatu hurrengo kasuak eta proposatu tratamenduaren estrategia dietetiko (aipatu dieta normokalorikoa edo hipokalorikoa izango den eta dietaren konposizioari buruzko ezaugarri garrantzitsuenak izendatu) eta helburua:
 - a. Gizona, 50 urte. Pisua=112 kg, T=185 cm, Kolesterola=260 mg/dL, HDL=32 mg/dL, TG=241 mg/dL, gerri/aldaka indizea=1.02. Hipertentsioa eta diabetikoa.
 - b. Emakumea, 22 urte. Pisua=72 kg, T=155 cm, Kolesterola=240 mg/dL, HDL=42 mg/dL, TG=195 mg/dL, gerri/aldaka indizea=0.87.

- c. Emakumea, 56 urte. Pisua=82 kg, T=175 cm, Kolesterola=190 mg/dL, HDL=32 mg/dL, LDL= 115 mg/dL, TG=185 mg/dL, gerri/aldaka indizea=1.02.
- d. A kasuaren bigarren bisitan hurrengo datuak dauzkagu: Pisua=106 kg, Kolesterola=240 mg/dL, HDL=38 mg/dL, LDL= 145 mg/dL, TG=180 mg/dL, gerri/aldaka indizea=1.00.
- e. B kasuaren bigarren bisitan hurrengo datuak dauzkagu: Pisua=68 kg, Kolesterola=190 mg/dL, LDL= 135 mg/dL, TG=180 mg/dL, gerri/aldaka indizea=0.78.